



ALKATE DEKRETUA

Nik, Xabier Igartua Loidi Oñatiko Alkate-ordea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz (2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 47. Artikulua) ondorengoa agintzea erabaki dut:

2022ko tabernak ixteko ordutegi-proposamena

Otsailaren 11ko 14/2014 Dekretuak aldatu egiten ditu abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuko 12. eta 13. artikulua, Jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren ordutegiak eta jardura horiei buruzko beste alderdi batzuk arautzen dituen dekretua alegia.

14/2014 dekretuaren arabera:

12.1.- Udalaren esku geratzen da gehienez ere bi orduz luzatzea tabernen ixte ordutegia, udalak berak edo EAeko organo eskumendunak jai gisa edo interes turistikodun gisa kalifikatu dituzten gertaerak direla-eta. Gertaera horiek, besteak beste, honako hauek izan daitezke: ospakizun publikoak, auzoko jaiak, gertaera sozialak, azokak, sariketak, erakusketak edo antzekoak. Nolanahi ere, urtean, gehienez ere hamabost egunetan luzatu ahal izango da ordutegia.

12.2.- Halaber, udalek gehienez ere bi orduz luzatu ahal izango dute aurreikusitako ixteko ordua, jarraian adierazten diren kasu hauetan:

- a) Herriko jaietan, alegia, udal bakoitzak bere udal-mugartean ofizialki ezarri dituenak.
- b) Aste Santuan, ostegunetik astelehenera; Inauterietan, ostegunetik asteartera; eta Gabonetan, abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra.

12.3.- Aurreko paragrafoetan ezarritakoaz gain, udalek ordutegi orokorra gehienez ere bi orduz luzatu ahal izango dute (urtean, gehienez ere hamabost egunetan), aurreikusi ezin daitezkeen ezohiko inguruabarrak direla-eta, betiere, inguruabar horiek lehenengo paragrafoan aurreikusitako gertaeren antzekoekin zerikusia badute.

Hori dela eta, 2022ra begira, Alkateak tabernak ixteko orduaren luzapen hau proposatu du:

12.1. artikulua arabera, kasu hauetan tabernak ixteko ordutegia luzatzea:

- Auzoetako jaiak: San Migel Txiki, Atzeko kalea, Olakua, San Lorentzo, Bidebarrieta, Triana eta Errekalde auzoetako jaietan kasu bakoitzean bi egun.
- .- Korpus jaietan, egun bat

12.2. artikulua arabera, kasu hauetan tabernak ixteko ordutegia luzatzea

- .- San Migel jaietan
- .- Aste Santuan, ostegunetik igandera
- .- Inauterietan, ostegunetik asteartera
- .- Aurtengo Gabonetan, abenduaren 23tik urtarrilaren 8ra.

12.3. artikuluaaren arabera, kasu hauetan tabernak ixteko ordutegia luzatzea

- Kinttuen zapatua
- Kantoikrit
- Beteranotako finala
- San Juan eguna
- Opor aurreko ostirala 7/29
- Abuztuko oporren bueltako larunbata 8/27
- Haurren danborrada eguna

Kasu guztietan, ixte-ordutegiaren luzapena jai-bezpera egunetan aplikatuko da soilik, eta ordu eta erdikoa izango da gehien jota, horrela:

Kategoria	Igandeetatik ostegunera	Ostiral, larunbata eta jai bezperetan	Ekainaren 1etik irailaren 30era	Herriko jaiak, Gabonak, ihauterietan, Aste Santua
Taberna arruntak	1:00ak	+ ordu bat eta erdi	+ 30 minutu	+ ordu bat eta erdi
Taberna bereziak	2:30ak	+ ordu bat eta erdi	+ 30 minutu	+ ordu bat eta erdi

Otsailaren 11ko 14/2014 Dekretuak bere 13. artikuluan jasotzen du horretarako jarraitu beharreko prozedura zein den:

12.1 eta 12.2 artikuluetan jasotzen den luzapen eskaera hilabete bat lehenago egin behar da eta 12.3 artikuluan jasotzen diren kasuetan 10 egun lehenago. Kasu bietan Jaurlaritzaren ebazpena luzapen-eskaera eskatzen den eguna baino 72 ordu lehenago eman beharko da eta erantzunik ezean (isiltasuna) onartutzat ulertuko da (isiltasun positiboa). Ebazpena edo erantzun eza eguna iritsi baino 72 ordu lehenago jakinarazi beharko zaio Ertzaintzaren komisarian, kontuan har dezaten.

2

Gaia aztertu ondoren, erabaki hauek hartu ditut:

- a.- Onartzea tabernen ixte-ordutegia luzatzeko proposamena; hau da, proposatutako egunak eta ordutegiak onartzea.
- b.- Honen berri Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Bulegoari zein Bergarako Ertzaintzaren polizia-etxeari ematea.
- c.- Otsailaren 11ko, 14/2014 Dekretuko 12.6 artikuluan jasotakoaren arabera, herritarrek eta tabernariak horren berri izan dezaten Oñatiko Udalaren web orrian erabaki hau zintzilikatzea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2022eko otsailaren 25ean

Xabier Igartua Loidi



Oñatiko Alkate-ordea